

Antsoaingo Jaiak 2026



Noiz dira jaiak?

2026ko irailaren 17 ostegunetik,
irailaren 20 igandera.



Non dira jaiak?

Antsoain herrian.

Iruñetik gertu dago.

Villavesaz joan zaitezke Antsoainera

3 - 21 - 7 eta 11 zenbakietan.

Aurkibidea

1. Antsoaingo Udalaren eskutitza	3
2. Informazio garrantzitsua	6
3. Udalaren programa	7
➤ Irailak 17 osteguna	7
➤ Irailak 18 ostirala	10
➤ Irailak 19 larunbata	14
➤ Irailak 20 igandea	21
4. Elkarte eta kolektiboen programa	27
5. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren ibilbideak	29
6. San Kosme eta San Damian Parrokiako ekitaldiak	32
7. Interesatu ahal zaizun informazio gehiago	33
8. Informazio gehiago behar duzu?	36

1. Antsoaingo Udalaren eskutitza

Testu hau Antsoaingo Udalak
jaien egitarau ofizialean idatzi duen gutunaren
Irakurketa Errazera egokitutako bertsioa da.

Eskutitza pertsona hauek idatzi dute:

- Carlos Jiménez Sarasa.
Kultura eta Festetako zinegotzia da.
- Marta Díez Napal.
Antsoaingo alkatea da.

Eskutitzean Carlosek eta Martak
jaiei buruz, horien atzean dagoen lanari buruz
eta errespetuarekin eta gozamenez disfrutatzearen
garrantziari buruz hitz egiten dute.



Antsoaingo Udalaren eskutitza

Bizilagunok:

Jaiak elkarbizitza bultzatzeko egunak dira.
Egun hauetan beste pertsonekin
hitz egin, jan, dantzatu eta gozatu dezakegu.

Jaiek, herri bereko kide garela sentitzen
laguntzen digute.

Baina garrantzitsua da
sentimendu hori urte osoan mantentzea.

Horregatik, garrantzitsua da,
komunitatearen parte izateko lan egitea.

Egunero beste pertsonak zaindu, lagundu
eta errespetatu ditzakegu.


Pertsona askok egiten dute lan
jaiak prestatzeko.

Pertsona horiek
denbora eskaintzen dute txupinazorako
dena prest egon dadin.

Txupinazoa jaiei hasiera ematen dien
suziria botatzen den
unea da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu:

- Elkartek eta taldeei.
- Udaleko langileei.
- Zerbitzu publikoei.
- Boluntarioei.
- Laguntzen duten bizilagun guztiei.



Pertsona horiek guztiek erakusten dute
gure herrian elkarrekin lan egiten dakigula.

Hautzaroak eta gaztaroak
haien espazioa izango dute.
Adineko pertsonak parte aktiboa izango dira.
Euskarak eta gure tradizioak
bere lekua izango dute edonon.

Antsoaingo herritarren parte izatea
herria ezagutzea ere bada.
Herriko jardueretan parte hartzea ere bada.
Eta jardurekin gozatzea ere bada.

Antsoain gara-Somos Ansoáin
elkarrekin lan egiten du hori lortzeko.

Antsoain gara-Somos Ansoáin

kultura-jarduerak antolatzen ditu.

Elkarrekin egoteko eta parte hartzeko
espazioak ere sortzen ditu.

Jarduera horiei esker,
beste pertsona batzuk ezagutu ditzakegu.
Eta herrian harreman onak izan ditzakegu.

Pertsona guztientzako jai askeak, seguruak
eta errespetuzkoak izatea nahi dugu.

Egun hauetaz gozatzea nahi dugu.

Pertsona guztiek parte hartu eta gozatu
ahal izateko.

Festa on, Antsoain!



2. Informazio garrantzitsua



Jailetako programa irakurri baino lehen
garrantzitsua da 3 gauza hauek jakitea:

- Euria egiten badu jarduera guztiak
ikastetxeko jolastokian,
kiroldegian edo frontoian egingo dira.
- Oso garrantzitsua da txupinazoan
iririk ez botatzea
oso arriskutsua delako
zeliakia duten pertsonentzat.
Antsoainen pertsona guztiek
txupinazoaz gozatzea nahi dugu.
Zeliakia duten pertsonek
alergia diete zereal mota batzuei,
adibidez, irinari.
- Igandean arratsaldeko 5etatik 6etara
barrakek haien musika kenduko dute
autismoa edo hipersentiberatasun duten pertsonek
parte hartu ahal izateko.
Hipersentiberatasun akustikoa duten pertsonek
normalean baino zarata gogorragoak entzuten dituzte.
Zarata horiek molestia handia eragin dezakete
eta belarrietan ere min eman dezakete.



3. Udalaren programa

Hemen Udalak antolatu duen
festen programa irakurri dezakezu.

➤ Irailak 17, osteguna

Arratsaldeko 2etan

60 urtetik baino gehiagoentzako bazkaria

Bazkaria Lapurbide plazan izango da.

Arratsaldeko 4etan

Luzianoren ikuskizuna

Luziano musika jotzen duen
eta abesten duen gizon bat da.
Ikuskizuna Lapurbide Plazan da.



Arratsaldeko 5ak eta laurdenetan

Maiordomoen dantza


Dantza horrek
tradizio berri bati
hasiera emango dio.
Antsoain ordezkatzeko duten pertsonak
dantza egiten dute jantzi tradizionalekin.



Arratsaldeko 6etan

Udaletxeko Plazan:

- **Txupinazoa**
jaiei hasiera emateko.
- **Aperitibo herrikoia.**
Txupinazoa eta gero
Antsoaingo Udalak
aperitibo batera gonbidatuko du.
- **Antsoaingo Erraldoien eta Buruhandien Konpartsa eta Konpartsa Txikia**
Erraldoiek ikuskizun bat egingo dute
eta buruhandiek haurren atzetik korrika egingo dute.
- **Kalejira**
Obelix txarangak bere musika
Antsoaindo kaleetatik ioko du.



Arratsaldeko 7 eta erdietan

Txikientzako entzierroa

Haurrek kartoizko zezenen aurrean
korrika egiteko aukera izango dute
Zelaia Parkean.



Arratsaldeko 8etan

Larrain Dantza

Nahi duten pertsona guztiek

Larrain Dantza izeneko

dantza herrikoa dantzatzeko aukera izango dute
Zelaia Parkean.



Arratsaldeko 8etan

Kontzertua

Sabotaje deitzen den taldeak
rock kontzertu bat emango du
Rafael Alberti Plazan.



Gaueko 10etan

- **Zezensuzkoa.**

Haurrek suzko txinpartak botatzen dituen
egurrezko zezen baten aurrean
korrika egiteko aukera izango dute.
Zezensuzkoa Zelaia parkean izango da.



- **Kontzertua.**

Guri Bost taldeak

kontzertu bat emango du Txosnetan.

Txosnak Jimeno Jurio Parkinean daude.



➤ Irailak 18, ostirala

Goizeko 11etatik eguerdiko 1 eta erdietara

Haurrentzako jolas gunea

Ezkaba Ikastetxe Publikoan espazio bat egongo da haurrek material ezberdinekin jolasteko.



Eguerdiko 12etan

Parkour tailerra

Parkoura jarduera fisiko mota bat da.

Parkour egiten duten pertsonak hiri barruan azkar mugitzen dira.

Horretarako haien gorputza erabiltzen dute oztopoak gainditzeko.

Adibidez, bankuen gainetik salto egiteko, hormak igotzeko edo hesi bat igo eta pasatzeko.

Tailer honi esker

8 urtetatik gorako neska-mutilek parkour egiten ikasi ahal izango dute Lapurbide plazan.



Arratsaldeko 5etan

- **Haurrentzako animazioa.**

Xip Xap taldeak

haurrentzako ikuskizun bat egingo du
Lapurbide Plazan.

Ikuskizunaren izena

Que salte la plaza! da.

- Ikuskizuna gaztelaniaz da.



Arratsaldeko 6etan

- **Antsoaingo Erraldoien eta Buruhandien Konpartsa eta Konpartsa Txikiak**

Erraldoiek ikuskizun bat egingo dute
eta buruhandiek haurren atzetik
korrika egingo dute.

Antsoaingo Konpartsa Txiki izeneko

haurren konpartsak

ibilbide bat egingo du

Antsoaingo kaleetan zehar.

- **Jotak.**

Voces navarras izeneko jota taldeak

kontzertu bat emango du

Plaza Berrian.



Arratsaldeko 7 eta erdietan

Txikientzako entzierroa

Haurrek kartoizko zezenen aurrean korrika egiteko aukera izango dute Zelaia Parkean.



Arratsaldeko 8etan

Kontzertua

Motxila 21 izeneko taldeak kontzertu bat emango du Rafael Alberti Plazan.



Gaueko 10etan

Zezensuzkoa

Neska-mutilek suzko txinpartak botatzen dituen gezurrezko zezen baten aurrean korrika egiteko aukera izango dute. Zezensuzkoa Zelaia parkean izango da.



Gaueko 10 eta erdietan

Kontzertua

La Mala Pékora izeneko musika taldeak kontzertu bat emango du Rafael Alberti Plazan.



Gaueko 11 eta erdietan

Kontzertua

Jumelage izeneko musika taldeak kontzertu bat emango du Txosnetan.



➤ Irailak 19, larunbata

Goizeko 9etan

Dianak

Gaitero talde bat
Antsoaingo kaleetan zehar ibiliko da
musika jotzen
auzokideak esnatzeko.



Goizeko 10 eta erdietan

Saskibaloi txapelketa

Errondaren ondoan dagoen
kirol-anitzeko pistetan
saskibaloi txapelketa bat egongo da
lehen hezkuntzako 6. mailatik gorako
nerabe eta gazteentzat.

Txapelketa honetan parte hartzea
doakoa da.

Talde bakoitza 3 pertsonakoa izango da.

Txapelketan izena emateko
Harrobirekin, hau da, Antsoaingo Gaztelekuarekin
hitz egin behar duzu.

Bere telefono zenbakia 948 14 23 52 da.

Ez duzu saskibaloi-baloirik eraman behar.



Goizeko 11etan

Antsoaingo erraldoi eta buruhandien konpartsak eta Konpartsa Txikiak

Antsoaingo kaleak zeharkatuko dituzte.
Kalejira Udaletxetik abiatuko da.



Goizeko 11etatik eguerdiko 2etara

Haurrentzako parkea

Goiz osoan zehar
haurrentzako puzgarriak egongo dira
Sakanpea Plazan.



Eguerdiko 11 eta erdietan

Futbol txapelketa

Errondaren ondoan dagoen
kirol-anitzeko pistetan
futbol txapelketa bat egongo da
nerabe eta gazteentzat.

Txapelketa honetan parte hartzea
doakoa da.

Talde bakoitza 3 pertsonakoa izango da.

Txapelketan izena emateko

Harrobirekin, hau da, Antsoaingo Gaztelekuarekin
hitz egin behar duzu.

Bere telefono zenbakia 948 14 23 52 da.

Ez duzu futbol-baloirik eraman behar.



Eguerdiko 12etan

Halterofilia txapelketa

Lapurbide Plazan
halterofilia txapelketa egongo da.

Halterofilia kirol bat da,
non pertsonak pisuak altxatzen dituzten.
Pisuak metalezko barra bat dira
eta alboetan oso pisutsuak diren diskoak dituzte.




Eguerdiko ordu 1etan

Kalejira

Gaztetxarrak txaranga

Antsoaingo kaleetan zehar ibiliko da
bere musika jotzen.



Eguerdiko 2etan

Saiheski jana

Saiheski jana herri-bazkari bat da.
Gaztetxearen inguruan egiten da.

Pertsona talde bakoitzak,
adibidez, familia edo lagun talde bakoitzak,
bere janaria prestatzen du.

Zure janaria Udalak jarriko dituen
barbakoetan prestatu dezakezu.
Etxetik egindako janaria ere
eraman dezakezu.



Ezin da janaria lurrean sukaldatu.

Saiheski jana egun osoan izango da.

Udalak ogia eta ardoa doan emango ditu.
Ogia eta ardoa jasotzeko
El Charco Peñan izena eman behar duzu arratsaldetan.
Peña Mendikale kalean dago 6. zenbakian.

Izena emateko azken eguna
irailaren 16a, asteazkena da.

Ogia eta ardoa jasotzeko
irailaren 19an, larunbatean
El Charco Peñara joan behar zara.
Ogia eta ardoa jasotzeko ordutegia
goizeko 10 eta erdietatik
eguerdiko 12 eta erdietara da.



Eguerdiko 2etan

Jubilatuen bazkaria

Sahieski janaren ordu berean
jubilatuta eta erretiratuentzako bazkaria ere egongo da
polikiroldegian.

Bazkarian izena emateko

Ezkabako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkartearekin
hitz egin behar duzu.

Elkartea Lapurbide Plazan dago.

Elkartearen telefono zenbakia
948 36 32 99 da.

Bazkariak zenbat diru balio duen jakiteko
deitu telefonoz elkartera.



Eguerdiko 2 eta erdietan

Paellada herrikoia

Paellada herrikoia
jende askok paella jaten duen bazkaria da.
Paellada parte hartzeko,
izena eman eta ordaindu behar duzu.



Arratsaldeko 4 eta erdietatik 7etara

Haurrentzako parkea

Goiz osoan zehar
haurrentzako puzgarriak egongo dira
Sakanpea Plazan.



Arratsaldeko 5etan

Lucianoren ikuskizuna

Luziano musika jotzen duen
eta abesten duen gizon bat da.
Ikuskizuna Lapurbide Plazan da.



Arratsaldeko 6etan

Mariatxi kontzertua

Puro Relajo mariatxi taldeak
kontzertu bat emango du
Rafael Alberti Plazan.



Arratsaldeko 7etan

Txikientzako entzierroa

Haurrek kartoizko zezenen aurrean
korrika egiteko aukera izango dute
Zelaia Parkean.



Arratsaldeko 7 eta erdietan

Dantzaldia

Gaitari eta txistulariek
dantzaldiak joko dituzte Plaza Berrian.



Arratsaldeko 8 eta erdietatik gaueko 10etara

Kontzertua

Trikiteens musika taldeak
kontzertu bat emango du
Rafael Alberti Plazan.



Gaueko 10etatik 12etara

- **Zezensuzkoa.**

Neska-mutilek suzko txinpartak botatzen dituen
gezurrezko zezen baten aurrean
korrika egiteko aukera izango dute.
Zezensuzkoa Zelaia parkean izango da.



- **Karaokea.**

12 eta 16 urte bitarteko pertsonak
karaokean parte hartu ahal izango dute
Lapurbide Plazan.



Gaueko 12 eta erdietatik Gaueko 3 eta erdietara

Kontzertua

Trikiteens musika taldeak
kontzertu bat emango du Rafael Alberti Plazan.



Gaueko ordu 1etan

Kontzertua

Maskak izeneko taldeak
kontzertu bat emango du Txosnetan.




➤ Irailak 20, igandea

Goizeko 9etan

Dianak

Gaitero talde bat
Antsoingo kaleetan zehar ibiliko da
musika jotzen auzokideak esnatzeko.



Goizeko 11etan

- **Erraldoi eta buruhandien konpartsa.**

Konpartsa Udaletxetik abiatuko da.

- **Binakako pilota partida profesionala.**

Partida pilotalekuan izango da.
Partidarako sarrera doakoa da.
Xala eta Armendariz pilotariak
Murgiondo eta Azanzaren aurka
jokatuko dute.



Goizeko 11etatik

eguerdiko 2 eta erdietara

Artisautza azoka

Azoka Lapurbide Plazan egongo da.



Eguerdiko 12etan

Zirkoa

Zirika Zirkus taldeak
euskarazko ikuskizun bat egingo du
Lapurbide Plazan.

Ikuskizunaren izena
Sinfonika Afonika da.



Eguerdiko ordu 1 eta erdietan

- **Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra**

Konpartsak agurra egingo du
Udaletxe Plazan.

- **Kalejira**

Goxo Txarangak musika joko du
Antsoaingo kaleetatik.



Eguerdiko 2etan

Kalderetea

Kalderetea prestatu nahi dutenen pertsonentzako,
Gaztetxearen inguruan izango da.

Parte hartzeko
El Charco Peñan
izena eman behar duzu arratsaldeetan.
Izena emateko azken eguna
irailaren 16a, asteazkena da.

Pertsona edo talde bakoitzak
gasa eta bere kalderetea egiteko
behar duen material guztia ekarri behar du.

Ezin da lurrean sukaldatu.

Udalak ogia eta ardoa doan emango ditu.

Ogia eta ardoa jasotzeko

El Charco Peñara joan behar zara
irailaren 20an, igandean.

Ogia eta ardoa jasotzeko ordutegia
goizeko 10 eta erdietatik
eguerdiko 12 eta erdietara da.



Arratsaldeko 4 eta erdietan

Emakumeentzako kafea eta kontzertua

Rafael Alberti Plazan

Adriana Olmedok kontzertua emango du.

Kontzertuaren izena **Desconciertadas** da.



Kontzertu hau emakumeentzat bakarrik da.

Kontzertuan zehar kafea egongo da.

Kontzertura joateko

sarrera **Idaki Kirol Instalazioetan**

jaso behar duzu.

Mendikale kalean dago 1. zenbakian.



Pertsona bakoitzak gehienez

2 sarrera hartu ditzake.

Arratsaldeko 5etan

Konpartsa Txikia

Antsoingo Konpartsa Txikia

Udaletxetik abiatuko da.



Arratsaldeko 6etan

Drag Bingo

Drag Bingo batean

Drag pertsonak
dinamizazioaz arduratzen dira.



Drag pertsona bat

mozorro eta makillaje ikusgarriekin
janzten den norbait da.

Bingoa egiten den bitartean
musika ere egongo da
bingoa dibertigarriagoa egiteko.

Bingo hau dinamizatuko dutenak pertsonak
Yogurinha Borova, Albina Stardust
eta Divina Comedia dira.

Bingo Txosnetan izango da.

Arratsaldeko 7etan

Txikientzako entzierroa

Hurrek kartoizko zezenen aurrean
korrika egiteko aukera izango dute
Zelaia Parkean.



Arratsaldeko 7 eta laurdenetatik 9ak laurden gutxietara

DJ Risasen musika

Rafael Alberti Plazan izango da.



Arratsaldeko 8 eta erdietan

Zezensuzkoa

Neska-mutilek suzko txinpartak botatzen dituen
gezurrezko zezen baten aurrean
korrika egiteko aukera izango dute.
Zezensuzkoa Zelaia parkean izango da.



Gaueko 9etatik 9ak eta laurdenetara

Jaien amaiera

Jaiei amaiera Udaletxe Plazan.



4. Elkarte eta kolektiboen programa

Hemen Txosnek, Bikupek, Antsoingo Gazteak eta El Charco Peñak antolatu dituzten programak ikusi ahal dituzu.

Txosnak

Irailak 17, osteguna:

- **Gaueko 10etan.**
Guri Bost taldearen kontzertua.
- **Gaueko 11etan.**
Malaika kontzertua.

Irailak 18, ostirala:

- **Arratsaldeko 6etan.**
Karrikadantza.
- **Gaueko 11 eta erdietan**
Jumelage taldearen kontzertua.
- **Gaueko 1etan**
Fan & Go taldearen kontzertua.

Irailak 19, larunbata:

- **Arratsaldeko 6etan.**
Salsa DJ.
- **Gaueko 11 eta erdietan.**
Public Enemy taldearen kontzertua.
- **Gaueko ordu 1etan**
Maskak taldearen kontzertua.
- **Gaueko 2 eta erdietan.**
DJ Saxis and Puyix musika.

Bikupe

Irailak 17, osteguna:

- **Arratsaldeko 8etan**
Romeria Biziraun taldearen kontzertua.

Irailak 18, ostirala:

- **Arratsaldeko 8 eta erdietan**
Cantu Salda taldeen kontzertua.
- **Gaueko 11etan.**
Rakatun taldearen kontzertua

Irailak 19, larunbata:

- **Arratsaldeko 8etan**
Motobomba taldeen kontzertua.
- **Gaueko 11etan.**
Maldita Amusia taldearen kontzertua

Antsoaingo Gazteak

Irailak 18, ostirala:

- **Eguerdiko 2etan**
Gazte Bazkaria
- **Arratsaldeko 5 eta erdietan**
Elektrozarata

El Charco Peña

Irailak 17, osteguna:

- **Gaueko 11etan.**
El Gran Ritxarson taldearen kontzertua.

Irailak 18, ostirala:

- **Arratsaldeko 7etan.**
Mariatxi Jesús kontzertua.

Irailak 19, larunbata:

- **Arratsaldeko 5 eta erdietan.**
Tardeo
- **Arratsaldeko 8etan.**
 - Luzianoren kontzertua.
 - Gaurko eta atzoko musika.

5. Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren ibilbideak



Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa

➤ **Irailak 17, osteguna.**

Arratsaldeko 5 eta erdietan.

Harrobietako kalea, Barrikada kalea, Noain anaiak kalea, Udaletxe plaza, Berriobide, Rigoberta Menchú kalea, Noain anaiak kalea, Rafael Alberti plaza, Noain anaiak kalea, Lerin, Berria plaza, Artzaintsa Jainkotiarra eta Lapurbide.

➤ **Irailak 18, ostirala.**

Arratsaldeko 6etan.

Udaletxe plaza, Mendikale kalea, Zelaia plaza, Noain anaiak kalea, Txosnak, Canteras kalea, Harrobietako zeharkalea, Euskal Herria plaza, Arturo Campión kalea, Canteras kalea, Soroko plaza, Lapurbide kalea eta Udaletxe plaza.

➤ **Irailak 19, larunbata.**

Goizeko 11etan.

Udaletxe Plaza, Artzaintsa Jainkotiarra kalea, Lapurbide kalea, Canteras kalea, Ezkaba kalea, Nafarroa kalea, Arturo Campión kalea, Canteras kalea, Artzaintsa Jainkotiarra kalea, Noain anaiak kalea, Barrikada kalea eta Harrobietako kalea.

➤ **Irailak 20, igandea.**

Goizeko 11etan.

Harrobi, Barrikada, Noain Anaiak, Artzaintsa Jainkotiarra, Kiñonen kalea, Rafael Alberti Plaza, Kiñonen kalea, Rigoberta Menchú, Berriobide, Ansoain errepidea, Noain anaiak, Sakanpea, Ostoki, Jurramendi, Noain Anaiak, Udaletxe plaza.

Hemen ere

Antsoingo Konpartsa Txikiaren ibilbidea

ikus dezakezu.

Antsoingo Konpartsa Txikia

➤ **Irailaren 20, igandea.**

Arratsaldeko 5etan.

Udaletxea, Berriobide kalea, Rigoberta Menchú kalea, Sakanpea kalea, Ostoki kalea, Lerin kalea, Lapurbide, Soroko kalea, Canteras kalea, Noain anaiak kalea, Rigoberta Menchu kalea, Sakanpea kalea, Noain Anaiak kalea, Lapurbide kalea, Harrobide.



6. San Kosme eta San Damian Parrokiako ekitaldiak

Hemen ikus ditzakezu

San Kosme eta San Damian Parrokian
egongo diren ekitaldiak.

Irailak 17, osteguna

Arratsaldeko 7 eta erdietan

Bezperen meza.

Bezperen meza arratsaldez egiten den
meza mota bat da.



Irailak 19, larunbata

Eguerdiko 12 eta erdietan

meza gure adinekoen omenez.

Antsoaingo **Ezkaba jubilatuen**

abesbatzak emanaldi bat eskainiko du.

Irailak 20, igandea

Eguerdiko 12 eta erdietan

meza San Kosme eta San Damian
patroien omenez.



7. Interesatu ahal zaizun informazio gehiago

Eraso sexisten aurka

Antsoaingo Udalak

esku more formako orratzak banatuko ditu.

Orratz hauek jaietan eraso sexistak

eta jarrera sexisten aurkako errefusa adierazteko dira.

Pertsona bakoitzak orratz 1 jasoko du.

Zure orratza jaso dezakezu

Idaki Kirol Instalazioetan

irailaren 14an, 15ean eta 16an.

Antsoainen **ez** esaten diogu eraso sexistei!



Eraso sexistei buruzko informazio gunea

Jaietan zehar eraso sexistei buruzko

informazio gune bat egongo da.

Gune honetan gai honi buruzko

zure esperientzia eta zure iritzia kontatu ahalko duzu,

laguntza jaso dezakezu

eta indarkeriari aurre egiteko informazioa jasoko duzu.

Informazio gune hau **Txosnetan** egongo da:

- Irailak 17, osteguna.
Gaueko 10etatik goizaldeko 2etara.
- Irailak 18, ostirala.
Gaueko 11etatik egunsentiko 5etara.
- Irailak 19, larunbata.
Gaueko 11etatik egunsentiko 5etara.

Gainera, larunbatean

informazio gune bat egongo da ere **Lapurbiden**

gaueko 10etatik 12 eta erdietara.

Eraso egin dizute eta laguntza nahi duzu?

Eraso bat jasan baduzu
eta laguntza behar baduzu,
3 aukera hauek dituzu:



Deitu **112 larrialdi** telefono zenbakira.



Deitu **Udaltzaingoari**.

Telefono zenbakia 609 41 94 44 da.



Joan eraso sexisten aurkako
informazio gunera.



Eraso bat ikusi duzu?

Eraso bat ikusi baduzu,
egin behar duzun lehenengo gauza
erasotutako pertsonari
laguntza nahi duen ala ez galdetzea da.



Pertsonak **baietz** esaten badizu,
aurreko orrialdean dauden **zerbitzuekin**
harremanetan jar zaitezke.

Pertsonak laguntzarik nahi **ez** duela esaten badizu
oso garrantzitsua da
bere erabakia errespetatzea.



Jaietan ere LGBTBI+

Jaiak ongi pasatzeko
eta besteekin egoteko gune bat dira.

Jaietan ere gogoratu nahi dugu
sexu eta genero aniztasuna errespetatzea
oso garrantzitsua dela.

Pertsona guztiok bakarrak gara.
Aniztasunak aberastu egiten gaitu
eta berdintasunean bizitzen laguntzen digu.

Gai honi buruz informazio gehiago nahi baduzu,
egin klik esteka honetan:

[Hasiera - Nafarroako Berdintasunerako Institutua](#)



8. Informazio gehiago behar duzu?

Informazio gehiago behar baduzu

Antsoaingo Udaletxearekin harremanetan jarri zaitezke.

Antsoaingo Udaletxearekin hitz egiteko

4 aukera hauek dituzu:



Joan zaitez bere bulegora.

Udaletxe Plazan daude, 1. zenbakian.



Deitu telefonoz 948 13 22 22

edo al 948 13 34 10 zenbakira.



Idatzi mezu elektroniko bat

cultura@ansoain.es helbidera.



Klikatu esteka honetan

bere web orrialdean sartzeko:

[Antsoaingo Udala](#)



"© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe. Más información en

<https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>".